

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

GAINTZAKO UDALA

*Ordenantza fiskalak 2026, behin betiko onespena*

Jendaurrean egoteko arauzko epean erreklamazio bat aurkeztu da, eta horrela, araudiak agindu bezala, Udaltzarra bildu da eta tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak aldatzeko behin betiko akordioa hartu da 2025eko abenduaren 17an egindako Osoko Bilkuran eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Aldatu diren ordenantza fiskalak iragarki honetan argitaratzen dira. Testu osoa [www.gaintza.eus](http://www.gaintza.eus) udaleko web orrian jarriko da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren.

2026 URTEKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETEN BEHIN BETIKO ONARPENA

2. Ordenantza Fiskala: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duena.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaizkion karga tasak:

- Hiri lurren gainekoa: 0,117.
- Landa lurren gainekoa: 0,70.

Hobarien atalean ondorengo ondorengo aldatzen da:

3. artikulua.

Hurrengo hobaria onartzen dira:

a) Familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboek kuota osoaren % 50eko hobaria izango dute, betiere honako eskakizunak betetzen dituztenak:

- Familiaren ohiko etxe bizitza.
- Udalarekin zerga-zorrik ez izatea.

Familia ugariak babesteko 40/2003 Legearen 2. artikulua familia ugariaren kontzeptua eta 3. artikulua familia ugariaren baldintzak arautzen dituzte, atal honen hobarien ondorioarako aplikatuko direnak.

3. Ordenantza Fiskala: Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.

A) Zaborbilketa zerbitzuaren tasak:

Tarifak:

– Etxebizitzak, taberna, eta jatetxeak: 80 €/sei hileko bakoitzeko.

5. Ordenantza Fiskala: Baso pista eta bideen erabileraren berezia arautzen duena.

Onartuta dagoen ordenantzan txertatu eta aldatu beharreko artikulua.

19. artikulua.

Bideen kontserbaziorako udalak behar den materialaren diru jarriko du edo horren baliokidea dirutan, hori izanik gutxi go-

AYUNTAMIENTO DE GAINZA

*Ordenanzas fiscales 2026, aprobación definitiva*

Durante el plazo reglamentario de información pública se ha presentado una reclamación, de forma que, tal y como exige la normativa, se ha reunido el Pleno Municipal y se ha adoptado el acuerdo definitivo de modificación de tasas, cuotas, tarifas y ordenanzas, en sesión plenaria celebrada el 17 de diciembre de 2025 y con efectos desde el 1 de enero de 2026. Las ordenanzas fiscales modificadas se publican en el presente anuncio. El texto íntegro se insertará en la página web municipal [www.gaintza.eus](http://www.gaintza.eus), previa publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

APROBACIÓN DEFINITIVA DE LAS MODIFICACIONES DE LAS ORDENANZAS FISCALES DE 2026

2. Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

Tipos de gravamen aplicables al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza urbana:

- Suelo urbano: 0,117.
- Suelo rústico: 0,70.

En el apartado de bonificaciones se modifica lo siguiente:

Artículo 3.

Se admite la siguiente bonificación:

a) Los sujetos pasivos titulares de familias numerosas gozarán de una bonificación del 50 % de la cuota íntegra, siempre que cumplan los siguientes requisitos:

- La vivienda habitual de la familia.
- No tener deudas tributarias con el Ayuntamiento.

El artículo 2 de la Ley 40/2003, de protección a las familias numerosas, regula el concepto de familia numerosa y el artículo 3 las condiciones de las familias numerosas, que se aplicarán a los efectos de las bonificaciones de esta sección.

3. Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

A) Tasas del servicio de recogida de basuras:

Tarifas:

– Viviendas, bares y restaurantes 80 €/semestre.

5. Ordenanza Fiscal reguladora del uso especial de pistas forestales y caminos.

Artículos a incluir y modificar en la ordenanza aprobada.

Artículo 19.

El Ayuntamiento aportará el dinero del material necesario para la conservación de las vías o su equivalente en metálico,

rabehera kostu osoaren % 50a eta erabiltzaile onuradunek lan amankomuna edo horren baliokidea dirutan % 50a.

Bideen konponketaren gastuei aurre egiterakoan, beste erakundeetatik lortuko diren diru laguntzetatik ordaintzeko geratuko den kopuruaren banaketa hau izango da: Gaintzako Udalak % 50a eta bideen erabiltzaileak beste % 50a, (erdizka etxe jabe eta lur jabeen artean banatuta).

Norbaitek ezingo balu auzolanean parte hartu, ordezkatzailereren bat jarri beharko luke, edo bestela egun bakoitzeko 100 € ordaindu. Modu honetan bildutako diruak, bideak sortarazten dituen gastuak ordaintzeko fondo amankomuna osatuko du.

#### 20. artikulua.

Bidearen konponketarako, bi egoera aurreikusiko dira:

a) Bideen mantenua: Bidearen erabilerak eragindako higadura, zartatze edo pitzadurak direnak konpontzerakoan, gastuen banaketan, bide horretako etxe jabe guztiek parte hartuko dute, denen artean laguntzak kenduta tokatzen zaien kopuruaren % 50a beraien gain hartuz. Gainontzeko % 50 bidea erabiltzen duten lur jabeen artean proportzionalki banatuko da.

b) Hondamendi natural, lubizi edo euriteen kalteen konponketa: uanean uneko bapateko kalteak sortuko direnean, konponketaren gastuen banaketan, kalteak sortu diren puntuetatik pasatzen diren etxe jabe zein lur jabeen artean banatuko dira, etxe jabeek % 50a eta lur jabeek % 50.

#### 21. artikulua.

Bideen konponketa egiterakoan, aurrekontuen kudeaketa eta kontratazio prozesua, Gaintzako Udalaren esku geratuko da, fakturazioa eta ordainketak bezala. Ordainketa osatzeko alde pribatuak hartuko duen konpromisoa ziurtatzeko, Gaintzako Udalak eta jabeen artean hitzarmen bat sinatuko da, ordenantzen aplikazioaren kalkulua zehaztasunez azpimarratuko direlarik.

#### 22. artikulua.

Nekazal ustiapenentarako ibilgailu astunen bitartez erabiltzen diren lur sailak:

Belar, arto, animalia garraio edo beste edozein landaketarako erabiliko diren 12 tonaz gaineko ibilgailu astunek, egin beharreko lan zehaztasuna azalduko duen baimen eskaria luzatuko diote Gaintzako Udalari. Bidearen egoera aurretik eta geroztik ikuskatuko da, eragingo diren kalteen ardura eta konponketa, lur jabearen ardurapean geratuko direlarik, lur jabeak erantzukizuna ustiatzailearekin birbanatuko ahal izango dituelarik. Gaintzako bideak erabiltzeko baimena, urteko 600 €koa izango da, eta urteko lehen hiru hilabete baimen eskariarekin batera kobratuko da.

Noizbehinkako erabilera egingo bada baimena aldiro eskatu beharko da eta ordainduko den tasa 50 €koa izango da.

Ustiatzaileentzako Hobariak:

Gaintzan erroldatutako herritarrak bertako lurren ustiapena ziurtatzen duten agiriak aurkeztuta, aipatutako tasaren % 60ko hobaria izango dute, erabiliko den bidea herritarraren errolda etxekoa bada, hobaria % 95eko izango delarik.

Hori guztia uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16.4 artikuluan agindutakoa betez ematen da argitaratzen, denek jakin dezaten eta aipatutako aginduan aurreikusitako gainerako ondorioentarako.

Aipatutako Foru Arauak 18.1. artikuluan xedatzen duenarekin bat, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango dute Zerga Ordenantzen aldaketak onartzen dituen erabaki horren aurka EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea

que representará aproximadamente el 50 % del coste total y el 50 % en metálico del trabajo común o equivalente de los usuarios beneficiarios.

La cantidad pendiente de abonar de las ayudas que se obtengan de otras Instituciones para hacer frente a los gastos de reparación de los viales se distribuirá en un 50 % por el Ayuntamiento de Gaintza y un 50 % por el usuario de los caminos, a partes iguales entre los propietarios de casas y terrenos.

Si alguien no pudiera participar en el Auzolan, debería aportar algún relevista o pagarle 100 € por día. La recaudación obtenida de esta forma constituirá un fondo común para sufragar los gastos que genere la vía.

#### Artículo 20.

Para la reparación de la vía se preverán dos situaciones:

a) Mantenimiento de caminos: En la reparación de desgastes, fisuras o fisuras derivadas del uso de la vía, participarán en el reparto de los gastos todos los propietarios de la misma, asumiendo conjuntamente el 50 % de la cantidad que les corresponda deduciendo las ayudas. El 50 % restante se distribuirá proporcionalmente entre los propietarios de terrenos que utilicen la vía.

b) Reparación de daños por desastres naturales, deslizamientos o lluvias: cuando se produzcan daños puntuales, en el reparto de los gastos de la reparación, se repartirán entre los propietarios y propietarios de las viviendas o terrenos que pasen por los puntos de producción de los daños, el 50 % por los propietarios y el 50 % por los propietarios.

#### Artículo 21.

En la reparación de caminos, la gestión presupuestaria y el proceso de contratación quedará en manos del Ayuntamiento de Gaintza, al igual que la facturación y los pagos. Para asegurar el compromiso de la parte privada para completar el pago, se firmará un convenio entre el Ayuntamiento de Gaintza y los propietarios, haciendo especial hincapié en los cálculos de la aplicación de la ordenanza.

#### Artículo 22.

Terrenos utilizados para la explotación agrícola mediante vehículos pesados:

Los vehículos pesados de más de 12 toneladas que se destinan a cultivos de hierba, maíz, transporte de animales o cualquier otro cultivo, solicitarán al Ayuntamiento de Gaintza una autorización en la que se especifique el detalle de los trabajos a realizar. Se inspeccionará antes y después del estado del camino, respondiendo de los daños y reparando, quedando a cargo del propietario, quien podrá redistribuir la responsabilidad con el explotador. La autorización para la utilización de las vías de Gaintza será de 600 €/año y se cobrará junto con la solicitud de permiso en el primer trimestre del año.

En caso de uso ocasional, la autorización deberá solicitarse periódicamente y la tasa a abonar será de 50 €.

Bonificaciones a los Explotadores:

Los ciudadanos empadronados en Gaintza, previa presentación de los documentos que acrediten la explotación de las tierras situadas en el mismo, gozarán de una bonificación del 60 % de la citada tasa, cuando la vía a utilizar sea el padrón domiciliario del ciudadano, con una bonificación del 95 %.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.1 de la citada Norma Foral, contra el expresado acuerdo aprobatorio de modificación de las Ordenanzas Fiscales, los interesados podrán interponer recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justi-

izango dute, aipatutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Dena dela, eta aipatutako aginduak baimentzen duen moduan, administrazioarekiko auzi-bideari ekin aurretik, interesdunek, nahi izanez gero, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan erreklamazioa jarri ahal izango dute hilabeteko epean, argitalpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Gaintza, 2025eko abenduaren 19a.—Jon Gorrotxategi Gorrotxategi, alkatea. (8834)

cia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del siguiente día hábil al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ello no obstante y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía contencioso-administrativa, reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Gaintza, a 19 de diciembre de 2025.—El alcalde, Jon Gorrotxategi Gorrotxategi. (8834)